



## **GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKI-PROPOSAMENA, AUKERAK, GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA SORTZEKO LEGE-PROIEKTUARI BURUZKOA.**

### **Lege-proiektuaren motibazioa.**

Konstituzioaren 25.2 artikulua pertsonak berreztera eta gizarteratzera bideratzen ditu zigorrak, eta, aldi berean, askatasunaz gabetzeko zigorretara kondenatutakoei aitortzen die lan ordaindua izateko eskubidea, Gizarte Segurantzari dagozkion onurak izatekoa, bai eta kultura eskuratzeko eta beren nortasuna osorik garatzeko ere.

Gizarteratzeko tratamenduaren funtsezko elementua da hori, aukera ematen baitu lan-merkatuan bilatzen diren lanbide-trebetasunak, lan-esperientzia eta autoestimua garatzeko, beharrezkoak baitira ordaindutako enplegu bat aurkitzeko aukerak areagotzeko, behin aske utzi ondoren.

Hala arautzen dute bai Espetxeen Lege Organiko Orokorrak eta hura garatzeko erregelamenduak, bai eta nazioarteko arauak ere, hala nola giltzaperatu edo barneratuen tratamendurako Nazio Batuen gutxieneko arauak (Nelson Mandela arauak) edo Europako Kontseiluko Ministroen Komitearen Rec (2006) 2-rev gomendioak, Europako Espetxe Arauei buruzkoak, 2006ko urtarrilaren 11n onartu, eta 2020ko uztailaren 1ean berrikusi eta aldatu baitzuten.

Aipatutako arauen arabera, Administrazioak eman behar du lana, eta ez da Administrazioak interes ekonomikoak lortzearen mende jarri behar.

Giltzaperatu edo barneratuen lan-eskubideak eta -betebeharrak uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuan arautzen dira. Lan-harreman berezia aitortzeko, espetxetik juridikoki bereizitako enplegatzaile publiko bat egotea eskatzen da. Ez dago lan-harremanik barneratuen jarduera osagarriak badira, espetxeak berak antolatuta. Horregatik, Estatuan espetxe-eskumenak dituzten administrazioek erakunde publiko bereziak sortu dituzte, barneratuen enplegatzaile gisa jarduteko eta merkatuan aritzeko, barneratuek garatzen dituzten produkzio-jardueri dagokienez.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio espetxeetako erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua, espetxe-arloko legeria orokorraren arabera, bai eta legeria hori betearaztea ere.

Eginkizun horien benetako eskualdatzea 2021eko urriaren 1ean egingo da, bat etorritik arau hauetan ezarritakoarekin: ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretua, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Estatu Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeko, eta uztailaren 6ko 169/2021 Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko.



Erabaki horren arabera, *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko entitateak kudeaketari eutsiko dio 2021eko abenduaren 31ra arte, hark kudeatutako tailerrei jarraipena eman ahal izateko, haren baliokide autonomikoa sortu bitartean.

Beharrezkoa da, beraz, Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea —AUKERAK izena izango baitu— ente publiko bereizi gisa, enplegatzaile gisa ekin diezaion askatasunaz gabetzeko zigorretara kondenatutako pertsonen lanarekin, lanerako prestakuntzarekin edo gizarteratzearekin zerikusia duen guztiari.

AUKERAKek garatu beharreko jarduerak barne hartzen dute lantegi produktiboak sortzea eta kudeatzea, barneratuei enplegua ematen dietenak, eta horren barruan sartzen dira ekoizpen- eta industria-jarduerak, merkataritzakoak eta egindako produktu edo zerbitzuak merkaturatzekoak. Jarduera horiek, nahitaez, zuzenbide pribatuaren arabera garatuko dira, hargatik eragotzi gabe zuzenbide publikoaren arabera jardutea ahal publikoak egikaritzean. Hori dela eta, bere izaera hobeto egokitzen zaio zuzenbide pribatuko ente publikoen figurari, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 15. artikuluan eta hurrengoetan arautzen baita.

AUKERAK behar bezalako aurrerapenarekin sortu eta abiarazi behar da, Autonomia Erkidegoak benetan bereganatu orduko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko entitatea garatzen ari den funtzioen kudeaketa; izan ere, langile barneratuen lan-harremanen jarraitutasuna bermatu behar da, haien lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak murriztu gabe.

AUKERAK bitarteko instrumental malgu eta moldakor gisa eratzen da, eta, esku hartzeko eredu integral baten bidez, askatasunaz gabetuta dauden pertsoneri bigarren aukerak erraztera bideratuta dago, prestakuntzaren eta laneratzearen bidez.

Eredu horren oinarria ez da zigorra bete bitarteko okupazio hutsa, baizik eta gizarteratzeko eta laneratzeoko ibilbideak definitzea, kontuan hartuta pertsona bakoitzaren trebetasunak eta bokazioa, bai eta genero-ikuspegia, politika publikoen integrazioa eta komunitate-eremuko gizarteratzea ere. Azken dimentsio horrek barne hartzen du orientazio eta lagun egite soziolaborala ematea kondenaren azken fasean edo erdi askatasuneko erregimenean, bai eta beste zerbitzu publiko batzuekin eta barneratu ohientzat hirugarren sektorean dagoen sarearekin lotzea ere.

### **Irakurraldi bakarrekoko prozedura bidez izapidetzea justifikatzea.**

Eusko Jaurlaritzak bere esku du, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 163.3 artikulua arabera, irakurraldi bakarrekoko prozedura erabiltzea, aurretiaz Legebiltzarrari baimena eskatu gabe, baldin eta aparteko inguruabarrak eta premia larriko arrazoiak badaude, betiere proiektuak ez badie eragiten autonomia-erkidegoko erakundeen antolamenduari, foru-erakundeen araubide juridikoari, hauteskunde-araubideari, edo herritarren eskubide, betebeharrak nahiz askatasunei.

Agindu horrek ez du eskatzen, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 163. artikulua 1. apartatuan ez bezala, lege-proiektuaren izaerak edo sinpletasunak irakurraldi bakarra ahalbidetzea. Baina kasu honetan betekizun horiek ere betetzen dira.

Lege-proiektuaren sinpletasunak irakurraldi bakarrekoko prozedura gomendatzen du, oso sinplea baita, artikulua bakarra, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat baititu. Haren arautze substantiboak AUKERAK, Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea du helburu nagusi. Legean, beraz, Agentziaren izena, xedea, eginkizunak eta zuzenbide

pribatuko ente publikoaren izaera azaltzen dira, eta gainerako apartatuek izaera horretako enteen arautze erkidera jo besterik ez dute egiten.

Kasu honetan, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 163. artikuluko 3. apartatuan jasotako betekizun guzti-guztiak betetzen dira: aparteko inguruabarrak eta premia larriko arrazoiak daude, eta ez zaio eragiten aginduak aipatzen dituen gaiei.

Aparteko eta premia larriko inguruabarrak daudela aztertzeko, beharrezkoa da inguruabar horien justifikazio esplizitua eta arrazoitua izatea, eta zentzuzko lotura egotea aparteko eta presazko gisa definitutako egoeraren eta hartu beharreko neurri zehatzen artean, inguruabarrak eta arauaren edukia kontuan hartuta. Alderdi horiek behar bezala arrazoitzen dira espedientean sartutako justifikazio-memorian, eta akordio honetan laburbiltzen dira.

Adierazi den bezala, eskualdatze-akordioak aurreikusten du Estatuko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* erakundeak urriaren 1etik abenduaren 31ra arte jarraituko duela kudeatzen produkzio-tailerrak eta haietan lan egiten duten barneratuen enplegatzaile-izaera, epe horretan izaera hori bere gain har dezakeen euskal erakundea sortu eta martxan jarri ahal izateko.

Estatuko ente publiko horrek betetzen zituen eginkizunak hartzeko, erakunde baliokidea sortu behar da EAEn; haren egitura eta funtzionamendu-arauak garatu; zuzendaritza-organoak izendatu; ustiapen-aurrekontuak egin eta onartu; bitarteko materialak eta giza baliabideak adskribatu; entitate horrek langile barneratuekin nahiz enpresa lankideekin zituen harreman juridikoak subrogatu; eta tailer produktiboak kudeatzeko enkargu berriak sinatu eta bereganatu, beharrezkoak izango baitira ez soilik alde aurretiko lan-harremanei eusteko, baizik eta espetxeen ohiko funtzionamendurako espetxe-jarduera oinarrizko zein osagarriak antolatu, hornitu eta kudeatzeko ere, besteak beste ekonomatua, elikadura eta antzekoak.

Hau da, une honetatik 2022ko urtarrilaren 1era arteko epea dago, erakunde publikoa sortu eta arautzeko ez ezik, baita hura martxan jarri eta eskualdaketa lehene egunetik hartu ahal izateko ere produkzioko tailerren kudeaketa eta enplegu-emailearen izaera, espetxeetan barneratuta dauden 350 langile baino gehiagorentzat, haiei soldata ordainduz eta gizarte-segurantzian alta emanez.

Egun hori baino lehen eratu ezik, ezinezkoa izango da ehunka langileren lan harreman bereziekin jarraitzea. Izan ere, nortasun propioa eta berezia duen erakunde bat martxan jarri gabe, pertsona horiek gaur egun egiten duten lana ez litzateke legez lan-harremantzat joko, baizik eta lan okupazionaltzat, ordainsaririk jasotzeko eskubiderik gabe, eta gizarte-segurantzako kotizazio-eskubiderik gabe.

Hala, atzera pauso bat izango litzateke pertsona horietako bakoitzaren gizarteratze-prozesuetan; izan ere, lan produktiboa gaitasun eta trebetasun berriak eskuratzera bideratuta dago, behin zigorra beteta gizarteratzeko eta laneratzeko erraztasun gehiago eduki ahal izateko. Gainera, ondorioak izan ditzake kanpoko entitateekin lankidetzan egiten ari ziren ekoizpen-tailerren etorkizuneko jarraipenean, baldin eta, behin eten ondoren, berriro ekiten ez bazaie erakunde laguntzaileek interesa galdu dutelako.

Helburu horiek betetzeak, bai eta horiek aplikatzeko aurreikuspenak denboran luzezinak izateak ere, arau hau onartzeko aparteko eta presazko beharra dakar, 2022ko urtarrilaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoan espetxe-lanaren inguruko eginkizunak hartzeko beharrezkoak diren ondorengo izapideak aktibatzeko legezko tresna eduki ahal izateko.



Urgentzia dela eta, legea tramitatzeko epeak erdira murriztuta ere, ezinezkoa litzateke epe hain laburrean burutu ahal izatea izapide guztiak: onarpena, kalifikazioa, agerraldiak proposatu eta egitea, zuzenketak aurkeztea eta haiek aurkezteko epea luzatzea, lantaldea izendatzea, lantaldearen txostena, batzordeko eztabaida, irizpena, osoko bilkurako eztabaida eta onarpena.

Horiek horrela, aparteko inguruabarrak eta premiazko arrazoiak daude irakurraldi bakarraren prozedura erabil dadila eskatzeko.

Bestalde, lege-proiektuak ez die eragiten Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen ordenamenduari, foru-erakundeen araubide juridikoari, hauteskunde-araubideari, ezta herritarren eskubide, betebeharrak edo askatasunei ere.

Inguruabar horiek guztiak, azken batean, osoko eztabaidaren arauari jarraituz tramitatzea gomendatzen dute, proiektu osoa bozketa bakar bati lotuz.

Horren ondorioz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren proposamenez, eta dagokion bezala eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak hau erabaki du:

## ERABAKIA

**Lehenengoa.** - AUKERAK, Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko den lege-proiektua onartzea. Eranskin gisa atxiki zaio Erabaki honi.

**Bigarrena.** Lege-proiektu hori, legez agintzen den dokumentazioarekin batera, Eusko Legebiltzarrera igortzea, Ganberaren Osoko Bilkuran zuzenean irakurraldi bakarrez izapidetzeko, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 163.3 artikuluan xedatutakoarekin eta akordio honen azalpen-zatian aipatzen diren arrazoiekin bat etorriz.

*Aurkez bekio Gobernu Kontseiluari.*

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

## **AUKERAK, GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA SORTZEKO LEGE-PROIEKTUA.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua pertsonak berreztera eta gizarteratzera bideratzen ditu zigorrak, eta, aldi berean, askatasunaz gabetzeko zigorretara kondenatutakoei aitortzen die lan ordaindua izateko eskubidea, Gizarte Segurantzaren dagozkion onurak izatekoa, bai eta kultura eskuratzekoa eta beren nortasuna osorik garatzekoa ere.

Gizarteratzeko tratamenduaren funtsezko elementua da hori, aukera ematen baitu lan-merkatuan bilatzen diren lanbide-trebetasunak, lan-esperientzia eta autoestimua garatzeko, beharrezkoak baitira ordaindutako enplegu bat aurkitzeko aukerak areagotzeko, behin aske utzi ondoren.

Hala arautzen dute bai Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoak eta hura garatzeko erregelamenduak, bai eta nazioarteko arauak ere, hala nola giltzaperatu edo barneratuen tratamendurako Nazio Batuen gutxieneko arauak (Nelson Mandela arauak) edo Europako Kontseiluko Ministroen Komitearen Rec (2006) 2-rev gomendioak, Europako Espetxe Arauei buruzkoak, 2006ko urtarrilaren 11n onartu, eta 2020ko uztailaren 1ean berrikusi eta aldatu baitzuten.

Aipatutako arauen arabera, Administrazioak eman behar du lana, eta ez da Administrazioak interes ekonomikoak lortzearen mende jarri behar.

Barneratuen lan-eskubideak eta -betebeharrak uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuan arautzen dira, hau da, espetxeetako lantegietan lan-jarduerak egiten dituzten presoan lan-harreman berezia eta gizartearen mesederako lan-zigorrak egin behar dituztenen Gizarte Segurantzaren babesa arautzen dituen. Dekretu horrek, lan-harreman berezia onartzeko, eskatzen du espetxetik juridikoki bereizitako enplegatzaile publiko bat egotea. Ez dago lan-harremanik barneratuen jardura osagarriak badira, espetxeak berak antolatuta. Horregatik, Estatuan espetxe-eskumenak dituzten administrazioek erakunde publiko bereziak sortu dituzte, barneratuen enplegatzaile gisa jarduteko eta merkatuan aritzeko, barneratuek garatzen dituzten produkzio-jardueri dagokienez.

Autonomia-estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio espetxeetako erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua, espetxe-erloko legeria orokorraren arabera, bai eta legeria hori betearaztea ere.

Autonomia Erkidegoak 2021eko urriaren 1ean bereganatuko du benetan eskumen hori, bat etorritik arau hauetan ezarritakoarekin: ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretua, espetxe-erloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzekoa, eta uztailaren 6ko 169/2021 Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-erloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.



Erabaki horren arabera, *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko entitateak kudeaketari eutsiko dio 2021eko abenduaren 31ra arte, hark kudeatutako tailerrei jarraipena eman ahal izateko, haren baliokide autonomikoa sortu bitartean.

Beharrezkoa da, beraz, Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea —AUKERAK izena izango baitu— zuzenbide publikoko ente bereizi gisa, enplegatzaile gisa ekin diezaion askatasunaz gabetzeko zigorretara kondenatutako pertsonen lanarekin, lanerako prestakuntzarekin edo gizarteratzearekin zerikusia duen guztiari.

AUKERAKek garatu beharreko jarduerak barne hartzen dute lantegi produktiboak sortzea eta kudeatzea, barneratuei enplegua ematen dietenak, eta horren barruan sartzen dira ekoizpen- eta industria-jarduerak, merkataritzakoak eta egindako produktu edo zerbitzuak merkaturatzekoak. Jarduera horiek, nahitaez, zuzenbide pribatuaren arabera garatuko dira, hargatik eragotzi gabe zuzenbide publikoaren arabera jardutea ahal publikoak egikaritzean. Hori dela eta, bere izaera hobeto egokitzen zaio zuzenbide pribatuko ente publikoen figurari, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 15. artikuluan eta hurrengoetan arautzen baita.

AUKERAK behar bezalako aurrerapenarekin sortu eta abiarazi behar da, Autonomia Erkidegoak benetan bereganatu orduko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko entitatea garatzen ari den funtzioen kudeaketa; izan ere, langile barneratuen lan-harremanen jarraitutasuna bermatu behar da, haien lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak murriztu gabe.

AUKERAK bitarteko instrumental malgu eta moldakor gisa eratzen da, eta, esku hartzeko eredu integral baten bidez, askatasunaz gabetuta dauden pertsonen bigarren aukerak erraztera bideratuta dago, prestakuntzaren eta laneratzearen bidez.

Eredu horren oinarria ez da zigorra bete bitarteko okupazio hutsa, baizik eta gizarteratzeko eta laneratzeoko ibilbideak definitzea, kontuan hartuta pertsona bakoitzaren trebetasunak eta bokazioa, bai eta genero-ikuspegia, politika publikoen integrazioa eta komunitate-eremuko gizarteratzea ere. Azken dimentsio horrek barne hartzen du orientazio eta lagun egite soziolaborala ematea kondenaren azken fasean edo erdi askatasuneko erregimenean, bai eta beste zerbitzu publiko batzuekin eta barneratu ohientzat hirugarren sektorean dagoen sarearekin lotzea ere.

### **Artikulu bakarra.- AUKERAK Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea.**

1.- Lege honen xedea da AUKERAK, Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea, zuzenbide pribatuko ente publiko gisa, espetxe-legeria betearazteko eskumena duen sailari atxikita. Gasteizen izango du egoitza agentzia horrek.

2.- AUKERAK zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatu beharreko lege-xedapenek eta haren estatutuek arautuko dute. Estatutuok Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko dira, Eusko Jaurlaritzan espetxe-legeria betearazteko eskumena duen sailak proposatuta.

3.- AUKERAKen helburua izango da Euskadiko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea. Bere helburuak lortzeko, honako eginkizun hauek dagozkie AUKERAKi:

- a) Espetxeetako produkzio-lana eta horren ordainsaria antolatzea, produkzio-tailerrak, nekazaritza-ustiategiak eta agintzen zaizkien espetxeetako edo gizarteratze-zentroetako zerbitzu osagarriak kudeatuz.



- b) Industria, merkataritza edo antzeko jarduerak egitea, eta, oro har, espetxe-lanarekin zerikusia duten edo administrazio publikoek agintzen dizkioten eragiketa guztiak egitea, dagozkion helburuak betetzeko.
- c) Askatasunaz gabetutako pertsonen lanbide-heziketa sustatzea.
- d) Kondenaren azken fasean edo erdi askatasuneko erregimenean enplegurako orientazioa sustatzea, eta beste erakunde edo entitate batzuekin lankidetzan aritzea pertsona horien gizarteratze- eta laneratze-ibilbideari jarraipena emateko.
- e) Bere xedea kontuan hartuta, ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien beste batzuk.

4.- AUKERAKen gobernu-organismoak dira Lehendakaritza, Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza.

Lehendakaritza Eusko Jaurlaritzan espetxe-legeria betetzeko eskumena duen saileko sailburuari dagokio, eta entearen ordezkari goren du.

Administrazio Kontseilua entearen zuzendaritza- eta kontrol-organo goren da. Lehendakariak eta zuzendariak gain, lau kide izango ditu gutxienez, eta zortzi gehienez, Gobernu Kontseiluak izendatuta.

Zuzendaritzak entearen ohiko zuzendaritza hartzen du bere gain, eta Eusko Jaurlaritzak izendatuko du, Administrazio Kontseiluak proposatuta. Zuzendaria goi-karguduna izango da, eta zuzendari-maila izango du.

Entearen estatutuetan garatuko dira aipatutako gobernu-organoen eginkizunak, osaera eta izendapena, bai eta haien funtzionamendu araubidea ere

5.- AUKERAKeko lanpostuak hauek beteko dituzte: horretarako kontratatutako langileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko edo haren mendeko erakundeetako langileak, lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunen izaeraren arabera.

Ahal publikoak baliatzea edo interes orokorrak babestea dakarten lanpostuak funtzionarioek bete beharko dituzte, eta langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzio publikoa arautzen duten arauak bete beharko dituzte.

Agentziaren zerbitzurako kontratatutako langileak Lan Zuzenbidea izango dute arau. Agentziak ezarri eta deitutako hautaketa-proben bidez kontratatuko dira langileak, publikotasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera.

6.- AUKERAKek baliabide ekonomiko hauek ditu bere helburuak betetzeko:

- a) Entearen hasierako zuzkidura, eta entearen gizarte-funtseko gehikuntzak, halakorik bada.
- b) Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ezartzen diren diru-izendapenak.
- c) Dirulaguntzak, beste administrazio publiko batzuen ekarpenak, dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak, bere alde halakorik ematen bada.
- d) Bere ondarearen barruko ondasun eta eskubideetatik eratorritako diru-sarrerak, eta bere jarduerak gauzatzetik eratorritako ohiko eta ezohiko diru-sarrerak.
- e) Esleitu ahal zaion beste edozein baliabide.

7.- Bere eginkizunak betetzeko, AUKERAKek beharrezkoak diren administrazio- eta xedapen-egintzak egin ahal izango ditu, bai eta ekonomia- eta finantza-eragiketak ere; gainera, hitzarmenak eta kontratuak egin ahal izango ditu, eta bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten dirulaguntzak eman eta haien oinarri arautzaileak onartu ahal izango ditu.

8.- Agentziaren ekonomia-, ondare-, kontratazio-, aurrekontu- eta finantza-araubidea, bai eta kontrol ekonomikoaren eta kontabilitate-kontrolaren araubidea ere, zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatu beharreko lege-xedapenetan aurreikusitakoak izango dira. Agentziaren kontrol ekonomikoa kontrol ekonomiko-finantzarioaren eta kudeaketakoaren modalitate iraunkorrean gauzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

9.- AUKERAK EAeko administrazio publikoen eta haien mendeko edo haiei lotutako sektore publikoaren berezko bitartekotzat hartu ahal izango da, Agentziaren estatutueta eta sektore publikoko kontratuen legerian adierazitako moduan.

#### **Xedapen gehigarri bakarra.- Transferitutako langileen atxikipena.**

Zuzenbide publikoko *Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo* Estatuko entitatean lanean ziharduten funtzionario transferituak AUKERAKen hasiko dira zerbitzuak ematen.

#### **Azken xedapenak.**

#### **Lehenengoa.- Jardueren hasiera.**

1.- AUKERAKen jardueren hasiera Eusko Jaurlaritzan espetxe-legeria betearazteko eskumena duen saileko titularraren agindu bidez zehaztuko da, lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, eta, nolahi ere, 2022ko urtarrilaren 1ean.

2.- Agentziaren jarduerak hasi aurretik, haren estatutuak onartu beharko dira, gobernu-organoak eratu, eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabideak eta ondasun eta baliabide materialak atxiki, bai eta Administrazio Orokorreko sailen egitura organikoak egokitu ere, hala komeni bada.

3.- Hala ere, Agentziaren jarduerak hasi orduko, haren estatutuak onartu ez badira eta haren gobernu-organoak eratu ez badira, Eusko Jaurlaritzan espetxe-legeria betearazteko eskumena duen saileko titularrari egokituko zaizkio Agentziaren erabateko funtzionamendurako beharrezkoak diren jarduketa guztiak.

#### **Bigarrena.- Indarrean jartzea.**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.



